EGITURAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Eraikinaren egiturari dagokionez, proiektutik datozen ideiak mantendu eta azpimarratuko dituen eraikuntza sistema eta egitura sistemak erabili dira. Egitura beraz, bi bolumenetan desberdina izango da.

A bolumena :¬ Hormigoizko bolumena izango da, harresiaren jarraipena egiten duen bolumen sinbolikoa. Horretarako, bolumen hau bi karga hormaz osatuko da. Lehenengo planoan geldituko dena hormigoizko bloke armatu bidez egingo da. Bigarrena, bi bolumenen artean geldituko dena, hormigoi armatuzko karga horma bidez osatuko da. Forjatuei dagokionez, hormigoizko lauza bidez egingo da, eta eskailera publikoa ere hormigoi armatuz egingo da. Bolumen honek ez du estalkirik izango, kanpo espazio bat kontsideratzen delako.

B bolumena: A bolumenaren atxikipena bezala ulertu daiteke. Horregatik honen egitura arinagoa izango da. Egitura portikatu baten bidez osatuko da. Kalkulua burutzerakoan, habeetan IPE perfilak eta zutabeetan HEB perfilak erabiliko dira. Forjatuei dagokionez, txapa grekatu edo kolaborantedun forjatu mixtoa ezartzea erabaki da, IPE habexken artean. Kalkulua garatu ahal izateko Acelor Mittal enpresako modeloak aukeratu dira.
Estalkiari dagokionez, bi estalki mota aurki ditzakegu bolumen honetan.
- Estalki lau igarogarri alderantzizkatua: Espazio publiko bezela ulertuko dena.4
- Deck estalkia. IPE habe, habexka eta txapa grekatu edo kolaborante bidez egingo dena.

Itxitura guztien xehetasunak, eraikuntza ataleko liburu teknikoan azalduko dira.

KALKULURAKO BALIOGARRIAK DIREN DATU OROKORRAK

Ondoren, kontuan diseinurako baliogarriak diren datu eta irizpide orokorrak zerrendatuko dira:
- Araudiari dagokionez CTE txostenetik DB-SE, DB-SE-C, DB-SE-A eta DB-SI ko dokumentu basikoen espezifikazioak bete beharko dira.
- Eraikinaren erabilera denboraldia: 50 urte baino gehiagoko erabilera izatea aurreikusten da. Baina proiektuarenizaera eraikin kultural eta soziala denez, etorkizunean bestelako erabilerak eta eraldaketak jasateko aukerarekin eraiki nahi da. Beraz, egituraren kalkuluan zenbait diseinu aldaketa eta perfilen sekzioen homogenizazioak garatuko dira. Emaitzetan hartutako erabakiak beti azalduko dira.
- Portiko eta egitura elementu guztietan S275 altzairu mota erabiltzen da.
- Ondorengo enpresen materialak erabiliko dira:
o Forjatu kolaborantea – Acelor Mittal
o Egitura perfil metalikoak – Acelor Mittal
o Forjatu kolaborantearen konektoreak Acelor Mittal
*Datu guztiak produktuen etxe komertzialeko katalogoetatik lortu dira.

- WinEva8 programa informatikoa erabili da ahal diren kalkuluak garatzeko.


-1. Zimendu oina


0. Behe oina


1. Lehen oina






2. Bigarren oina


3. Hirugarren oina


4. Estalki oina

AZTERTUTAKO PORTIKOA, 8. PORTIKOA

- IZAERA: Egitura sitema bi bolumenetan desberdintzen da, A bolumenean, hormigoizko karga hormek eta hormigoizko losa bidezko formatuak osatzen dute egitura. B bolumenean, altzairuzko habe habexka eta zutabeek osatzen dute egitura, forjatua mixtoa izango da. Egiturak sotoan hormigoizko karga hormen bidez osatzen da, bertan bi bolumenek egitura sistema berdina izango dute beraz.

- MATERIALAK:
Altzairua: S275, 210 N/mm2
Hormigoia: HA35, 273 N/mm2
Hormigoizko bloke armatuak: HA20, 153.8 N/mm2

- FORJATU KOLABORANTEA:
S210 altzairua
Konektoreen diametroa_2cm
Konektoreen tentsio onargarria_275 N/mm2 (maioratua)
Konektoreen minorazio koefizientea_1,25
Forjatuaren lodiera: 12Cm
Habexken ezarpena: m-ro habexkak ezarriko dira (Acelor Mittal-en katalogoaren arabera)

EGITURA ELEMENTUEN DESKRIBAPENA:
Kalkulurako proposatuko den egitura elementua, Sotoa + behe solairua + 3 solairutan eta estalkian antolatzen da, beraz 4forjatudun portikoa dela esan dezakegu. Egituraren kalkulua egiteko orduan, alde batetik altzairuzko elementuen konprobazioak egin dira, eta bestalde hormigoi armatuzko karga horma, lauza eta hormigoizko bloke armatuen konprobazioak egin dira.

Elementu isolatu moduan kalkulatuko da bolumena, eskailera guztiak egitura gehigarri bezala diseinatu dira proiektuan. Beraz, hauen kalkulua arbuiatuko da, beste egitura independente moduan aztertzen direlako. Eskematikoki forjatuen garapena ondorengoa izango litzateke:











GIZARTE ETXEA HONDARRIBIAN
Ikaslea: Nerea Sanchez Olaizola |Tutorea: Ula Iruretagoiena Busturia
Master Amaierako Lana